

1976 - X - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko urriaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, J. Iriar-Urruti, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, P. Andiazabal, J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, N. Etxaniz, J. A. Etxebarria, J. Fdez. Setien, J. Garmendia Kortadi, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, E. Salaberri, I. Sarasola, J. M. Torrealday, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

A. Irigaray, P. Larzabal, J. M. Lojendio, L. Mitxelena eta A. Zavala jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

a) HAR-EMANAK

Gipuzkoako Diputazioari, bere lehendakariaren heriotzagatik, gure atsekabea agertzea erabaki da.

Diputazioaren gutuna irakurri da, Gipuzkoako Escuela Universitaria del Profesorado de Enseñanza General Básica delako eskola honetan Euskal Hizkuntzaren katedra sortzeaz, probintziako eskoletarako irakasleak gertatzeko. Irakaskintza hau 1976-77 kursoan hasiko da, Euskaltzaindiaren laguntzaz eraturik. Lehen kurso honetarako 250.000,- pezetako laguntza eskainiaz. Eskerrak ematea erabaki da.

Durangoko XI. Euskal Liburu eta Disko Azokarako gomita hartu da, Gerediaga Elkartearen partetik. Azoka hau bihar arratsaldeko 7retan idekiko da, eta bertan emango zaio Euskaltzaindiari Urkiolako euskal jaieta-ko superabit dirua.

Etzi goizean, Udako Euskal Unibertsitatekoak biltzar bat antolatuko dute Durangoko Udaletxean, goizeko 10etan, eta Euskaltzaindiko norbait bidaltzea eskatzen dute.

Beobide, Larzabal eta Sarasolak osatzen duten epai-mahaiaren erabagiz, "Bitor Garitaonandia" antzerki saria *Urrutiko intxaurrak* izeneko lanari ematen zaio. Bere egilea Alegiko Xefe Balerdi jauna da. Saria bihar bertan emango da Bizkaiko Aurrezki Kutxan.

J. A. Etxebarria, Irigoyen eta Letamendia epai-mahaikoek, "Andima-Ibiñagabeitia" saiaera saria Jakue izenordez datorren *Espainolak eta euskaldunak XVI - XVII. mendean* lanaren eta *Haur besoetako* izeneko arteen banatzea erabaki dute.

Alfabetatzekoak biltzar bat izango dute etzi arratsaldeko bostetan Durangoko udaletxean. Euskaltzainditik norbait joatea nahi dute.

Bilboko Imprenta Industrial, S. A. inprimategian aurrera doa Edukazio eta Zientzia Ministergoaren enkarguz eginen duen Euskaltzaindiaren liburua, eta honetarako behar zituen edergarri eta proba zuzenketa laguntza eman zaio. Liburu aski handia eta ederra izanen da.

Linguistikako bosgarren batzarretarako deia, Montréal-ko Unibertsitateko Jacques D. Girard idazkariak egina. Batzar hauek 1978ko abuztuaren 21etik 26ra bitartean izanen dira.

Madrid-eko Universidad Complutense-tik bertako aldizkarirako euska eleberriari buruzko lan baten eskaria egiten digute.

J. J. Zearretak eman du diru-kontuen berri, apiriletik irailera bitartekoa: Guztira, zegoena, 215.977,84 pezeta; ehitua, 2.450.632,55; urrutia, 1.630.024,37; eta *dagoena*, 1.036.586,02 pezeta. Ondorean, dirua nola dagoen banaturik eta sarrera eta urrituen zertzeladarik aipagarrienak agertu ditu. Baita ere, dirua eman dutenen zerrenda irakurri du, bakoitzak eman duena aipatuz, azkenengoa Laudioko Udaltzarrarena.

Izendegia herritzeko eta hornitzeko batzordea izendatzen da: J. M. Satrustegi, A. Irigaray, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, J. L. Lizundia, Maria Pilar Lasarte, M. M. Urrestarazu eta E. Knörr-ek osatua.

Irakasle tituluei buruz, J. L. Alvarez Enparantzak dio, tituluok errezegei ez ote diren ematen. Lehen saioen berri eman da, eta elkarrizketa ondoren irakasle titulua lortzeko zer eskatzen den. Ikus, EUSKERA, XVII, (1972) zenbakiaren 220/225 orrialdeetan argitaratutako arauak.

Euskaltzainburuak agur berezi bat egiten die lehen aldiz batzarrera datorren J. Iriart-Urruti jaunari eta era berean aspaldiko aldiz agertu diren E. Salaberry, P. Andiazabal, J. L. Alvarez Enparantza eta L. M. Mujika jauneri.

Ondorean, J. Zaitegi jaunaren eritasunaren berri eman du, oraintsu bisita egin dion idazkariari berri gehiago emaneraziz. Honek agertzen du Zaitegi jaun adiskidearen gogo bakarra euskarara itzuliak dituen Platonen elkarrizketa argitara gabeak argitaraturik ikustez dela eta ongi merezi duela argitaratze bideetan laguntzea. Euskaltzainburua, J. M. Satrustegi eta idazkaria astearte arratsalde bisita bat egitekotan gelditu dira.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Goizeko lehen bilkura kargu berrien hautatzeaz izan da, Arautegiaren 28, 29, 30 eta 31. artikulua eskatzen duten araura. Bildu diren euskaltzain osoak: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, J. L. Davant, X. Diharce, J. Iriart-Urruti, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio, J. M. Satrustegi, A. Zavala eta J. San Martín. Hoziez gainera, beren poderio izkribuak bidali dituzte, P. Larzabal jaunak, J. Haritschelhar jaunari eta L. Mitxelena jaunak J. M. Satrustegi jaunari. Beraz, 16 boto dira bozketarako. Eta kargu bakoitza bozketara jo ondorean, lehengo beraiek berriz gelditzen dira nagusitasun osoa erdietsi ondorean. Hau da: L. Villasante Buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. San Martín Idazkari, E. Erkiaga diruzain.

Ondorengo bilkuran Durangoko udaletxeak ikurriñari buruz egin digun gutunezko galderaz, arazo hori gure egitekoa ez dela erantzutea erabaki da.

Izendegia hornitzeko, nahiz behar diren zuzenketa egiteko Euskaltzaindikoko guziei dei egitea erabaki da, bakoitzak berari deritzan oharrak

bialtzeko, nahiz J. M. Satrustegi jaunari edo nahiz Euskaltzaindiko bulegora.

Datorren urriaren 7an Xalbador bertsolariari omenaldia egingo zaio Urepelen eta hara joan nahi dutenei deia eta beren izenak ematea.

Tolosako elkarte guztiak bildurik eratzen duten "Euskal Kultur Ikas-taroa" delako erakunderako Euskaltzaindia ere beste zenbait elkargorekin batean laguntzaileen arteko izatea eskatzen digute, guretako zenbait ere hizlari edo irakasle izango direnez. Eratze hau aurtengo azaroaren 16tik helduden urteko maiatzaren 26ra artekoa izanen da, euskaraz eta erdaraz era guzietako gaiak ikutuz. Laguntasun hau onartzen da.

Euskaltzaindiari iritzi edo proposamen gisa 23 jaunek izenpeturik heldu den gutuna irakurri da. Eta honi buruz euskaltzainburuak egin dituen zenbait ohar. Ondorean, A. Irigoyen euskaltzain jaunak gai hontaz eman dituen iritziak eta azkenik bi punduko proposamendua. Idazkiok euskaltzain oso guztien artean zabalduak dira, baina eskatzen duten laguntzaileen artean ere kopia bana zabaltzea erabaki da.

d) UME EUSKALDUNEN ALFABETATZEA

Jose Antonio Retolaza jaunaren txostena. Haurren hizkuntzazko zenbait teoria agertu ditu eta ondorean Kili-kili-ren bidez egin duen lana adiarazi eta bertatik jaso dituen esperientzia garrantzitsuak agertu.

e) OINATIKO ESKU IZKRIBUARI BURUZ OHAR ZENBAIT

A. Irigoyen jaunaren txostena, Oinatin liburu zahar baten larruzko azalaren barnetik aurkitu dituen izkribu batzuri buruz. Liburua XV. mendekoa da, baina esku-izkribu horiek, idaz tankeraz, XVI. mendekoak. Eta horien testuen argitasunak ematen ditu.

f) BAKOITZAK DAKARRENETIK

X. Kintana jaunak berak eta Imanol Berriatua jaunak Israelen zehar egin duten joan-etorriaren berri eman du. Hango Hizkuntza Akademiakoekin egonak dira eta Euskaltzaindiarekiko har-emanak nahi omen dituzte, besterik ezean elkarren lanen berri aldizkariak trukatu. Ontzat hartu da EUSKERA hango Akademiaren boletinaren trukez ematea.

J. Intxausti jaunak *Gero*-ren seigarren argitalpena aurkeztu du, Jakin-ek argitaratua Euskaltzaindiaren babesez eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren diru laguntzaz.

g) EUSKAL HIZTEGI ARAUEMAILE ENTZIKLOPEDIKOAREN PROJEKTOA

Ondorean, Diputazio bereko saloi nagusian bildurik, Diputazioaren izenean Juan Egia buruordezko dela eta Ayestaran jauna Aurrezki Kutxa Probintzialaren izenean, Karlos Sistiaga Aurrezki Kutxako zuzendaria eta Euskaltzaindiko zuzendaritzakoak mahaiburuan direla hasi da biltzar

idekia, Ibon Sarasola euskaltzain laguntzaileari Gipuzkoako Aurrezki Kutxak babesturik gomendatzen zaion Hiztegi Arauemailearen asmoak zer diren aurkezteko.

Julio Abad Mata jaunak egin du biltzar honen aurkezpena eta ondorean Ibon Sarasolaren mintzaldia, euskaraz eta erdaraz, Hiztegi hau zer litzaken eta bere asmoak nolakoak diren agertuaz. Mintzaldiaren bukaran, Euskaltzaindikoa idazkariak L. Mitxelena jaunaren gutuna irakurri du, bera ezin etorriaz idazkiz bere iritzia agertuz. L. Villasante euskaltzainburu jaunak agurrezko hitzak, hiztegiaren premia larria agertuz. Jesus Maria Ayestaran jaunak Aurrezki Kutxaren izenean agurrezko hitzak, eta azkenik Juan Egia jaunak Diputazioaren izenean.

Bukatzean Ibon Sarasolaren mintzaldia idazkiz zabaldu da batzarkideen artean.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1976 - XI - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko azaroaren 26an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. M. Iriondo, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urriko agiria onartzean, Irigoyen jaunak, bere txosteneko Oinatiko esku-izkribuari buruzkoan mendeak gaizki jarrita daudela, XV eta XVI mendeak alderantziaz. Zuzen jartzea eskatzen du.

Euskaltzainburuak, Antonio Arrue eta Fernando Aire "Xalbador" jaunen hil berria eman du, ondorean Antonio Arrue euskaltzain zenaren nortasunez txostentxo bat irakurriaz. Eta familiari gutunez atsekabea agertzea eskatzen du.

Euskaltzainburu jaunak, arautegiaren 33. artikulua eskatzen duen bezala, euskaltzain oso baten hutsarte agerrarazten du, izendapen berri-rako proposamenak eskatuz.

J. M. Aranalde jaunak Xalbadorren nortasuneko txostena irakurri du.

a) HAR-EMANAK

Abenduaren 19an Arrasaten J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunari egingo zaion omenaldiaren berri eman da. Euskaltzaindikoei bertara joateko gomit egiten zaie.